

# AGENDA 21EKO FOROAREN AKTA



**SAN IGNAZIO AUZOKO BEHIN BETIKO PROIEKTUAREN AURKEZPENA:** klima-aldaketara egokitzeko konponbide berritzailea aplikatzea eta hiri-eremua hobetzea, Europako LIFE proiektuaren baitan.

## PROIEKTUA BIZILAGUNEI AURKEZTU

2019ko abenduaren 19an, ostegunean, 18:30etik 20:00etara.

Legazpiko Buskabaso elkartearen lokalean (San Ignazioko eskolak)

Jon Laurenz arkitektoak bizilagunei aurkeztu die auzoa hobetzea eta auzoari balio erantsia ematea bilatzen duen Udalaren behin betiko proposamena. Hirigintzan egingo den esku-hartze berritzailea izango da; esku-hartze horrek klima-aldaketaren eraginei aurre egitea ahalbidetuko du Europako Good Local Adapt (LIFE) proiektuaren baitan.

Dokumentu honetan bileraren laburpena eta ideia nagusiak jasotzen dira, honako eskema jarraituz:

### EDUKIEN ESKEMA:

1. Saioaren helburua eta planteamendua
2. Parte hartzaileak
3. Esku-hartzeko proposamenaren aurkezpena eta kontrastea
4. Eskerrak ematea eta amaiera

## 1. Saioaren HELBURUA ETA PLANTEAMENDUA

Joan den urriaren 10ean Udalak San Ignazio auzoa klima-aldaketara egokitzeko eta auzoko hiri-eremua hobetzeko proposamena aurkeztu zion auzoari. Bilera hartan bertan parte hartu zuten bizilagunen ikuspegia eta egin zituzten ekarpenak jaso zituen Udalak.

Proiektua aztertu eta teknikoki landu ondoren, behin betiko proiektua ekarri da gaur auzora eta EKINN, Ekoinnovating Koop. E.T. enpresako Jon Laurenz arkitektoak aurkeztu du.

## 2. PARTE HARTZAILEAK



29  
pertsona



13  
emakume



16  
gizon



Guztira 29 pertsonек hartu dute bileran parte: 13 emakume eta 16 gizon. Gehienak San Ignazio auzoko bizilagunak eta, horiez gain, Tokiko Agenda 21eko Foroko ohiko parte-hartzaileak, udalerraren ikuspegi orokorra eman dutenak. **Eskerrik asko guztioi!**

Eta bestetik saioan izan dira Jon Laurenz proiektuaren arkitekto arduraduna eta ondorengo udal ordezkari politiko zein teknikoak: Koldobike Olabide (alkatea), Maite Lombide (zinegotzia), Edurne Gonzalez (zinegotzia), Alonso Frances (aparejadorea) eta Inma Hernandez (ingurumen, industria, merkataritza eta turismo teknikaria).

### 3. PROPOSAMENAREN AURKEZPENA ETA KONTRASTEAK



#### PROPOSAMENAREN AURKEZPENA

Hasteko, Koldobike Olabide alkateak hartu du hitza eta Udalak eta Jon Laurenz arkitektoak urriko bileran jaso ziren ekarpenak aztertu dituztela jakinarazi du. Horren emaitza da gaur bizilagunekin kontrastatzeko aurkeztuko den proposamena. Gogora ekarri du proiektu hau klima-aldaketara egokitzeko proiektua dela eta Legazpi Klima 2030 udal estrategian sartzen dela. Horregatik planteatzen diren irtenbideak hauen ingurukoak dira: drainatze iraunkorreko teknikak aplikatzea, material naturalak erabiltzea, uholdeetara egokitzeko teknikak (euri-ura jasotzeko sistemak proposatzen dira), bero boladei aurre egiteko teknikak (itzala emango duten elementuak proposatzen dira)....

Segidan, Ekinn taldeko Jon Laurenz arkitektoak San Ignazio auzorako proposatu diren esku-hartzeak azaldu ditu:



### Zoladura:


- Auzko kaletik ibalgailu gutxiago igarotzea da helburuetako bat eta igarotzen direnak polikiago pasa daitezela. Horretarako estutu egind a bidea eta espaloiak handitu; begiratokian oinezkoentzako gunea sortu da.
- Zoruan baldosa iragazkorra jarriko da. Horrela, horma aldean euri-ura jasoko da eta parkean jarriko den ur-biltegi batera eramango da. Biltegi hori lurpean egongo da eta berdegune bat izango da ikusiko dena. Isurbide bat jarriko zaio biltegiari urak gainezka egingo duenerako. Ur hori gauza askotarako erabil daiteke gero: ureztatzeko, erratz-makinan erabiltzeko,...
- Era berean esku-hartze horrekin ura etxebizitzetara sartzea saihestuko da.
- Oinezkoentzako igarobidean baldosa mota bat jarriko da eta ibilgailuak igarotzeko bidean haien pisua ondo jasango duten baldosak jarriko dira.
- Aparkalekuetan jarriko den zorua iragazkorra izango da, legarrarekin nahastuta edo landareekin tartekatuta.

### Berdeguneak eta itzalguneak:

- Zuhaitzak landatuko dira, itzala eman dezaten eta ura atxikitzeko guneak sortzeko. Hau da, euri-ura jasoko da zuhaitzerako eta soberan geratuko dena parkeko ur-biltegiara joango da. Ura trumilka ibaira ez iristea da helburua.
- Eskailerak hobetuko dira eta auzoko 3 zenbakidun atari ondoan dagoen horma irazgaiztuko da.

### Pergolak:

- Aurreko bileran ez zen ondo ikusi goialdean pergola bat jartzea; beraz, proposamen berrian pergola hori haur-parkearen ondoan jarri da. Zurezko azalera izango du, alboak irekita egongo dira eta estalkian landare igokariren bat jarriko da, itzala eman dezan eta euri-ura jaso dezan.



### Kalea estutzen den eremuak:

- Eremu horietako zorua hormigoi porotsuzkoa izango da. Asfaltoa baino argiagoa denez, egun beroetan murriztu egiten du tenperatura.
- Gaur egun espaloien zabalera 0,80 zentimetrokoa edo metro batekoa da eta obra egin ondoren 1,25 eta 2 metro arteko zabalera izango dute espaloiek. Horretarako bota egin beharko da kalearen gune estuenean dagoen harlangaitzeko hormaren zati bat.
- Zutoinak jarriko dira oinezkoak babesteko.

### Beste gai batzuk:

- Edukiontzioak kalearen mutur batean jarriko dira, 5 zenbakidun ataritik gertu.
- 15 zenbakidun atari parean puskatuta dagoen horma konpontzeko, lur saila ertsiko duen sare bat jartzea planteatu da.

**Segidan eztabaidarako tartea ireki dugu** planteatu diren proposamenen gainean eta ondorengo gaiak nabarmendu dira:

- Hainbat parte hartzaile kezkatuta agertu dira aparkalekuetan **maniobratzeko leku gutxi** dagoelako. Beste aukera batzuk ere aztertu dira; adibidez zeharka aparkatzearena baina kasu horretan 2 aparkaleku galduko lirateke batetik eta bestetik auzo osoari buelta eman beharra ekarriko luke. Beraz, horregatik egin da aurkeztu den proposamena.
- Erratz-makinak biltegi berritik ura hartzea nahi bada, **parkera iristeko arrapala zabaldu** beharra egongo da etorkizun batean. Beste aukera bat da erratz-makinak behar duen ura mahuka bat erabiliz hartzea, ura dagoen lekuraino joan beharra izan gabe.
- **Itxaropen auzoko trafikoak** San Ignazio auzotik pasatzen jarraituko duen galdetu da. Alkateak kontu hori aztertu egin beharko dela esan du baina horrek ez du aztertzen ari garen proiektuan eragiten.
- 17 zenbakidun atari inguruan **euri-urak eta ur beltzak** elkartzen dira. Esku-hartze honetan hori ez da aldatuko baina dena prest utziko da etorkizunean zorrotan bakoitza dagokion kutxatilara lotu dadin.
- **Gasaren, argindarraren eta komunikazioaren lineak** aldatuko diren galdetu da. Esku-hartze horiek denak egiteko aurrekontu nahikorik ez dagoela erantzun da. Edozelan ere, leku zehatz batzuetan lurperatu egingo da linea elektrikoa.
- 18 zenbakidun atari ondoan, parkera doazen eskaileretan, **goroldioa** pilatzen da **eskaileretan** eta hori saihestu beharra dagoela aipatu da, mantentze-lan egokia eginez edo zoladuran esku-hartuz. Gune oso laiotza da eta arriskutsua. Aztertu egingo da.

## 4. ESKERRAK EMATEA ETA AMAIERA

Bilera amaitu aurretik gaurko saioan parte hartu duen taldearen hausnarketa eta lana eskertu nahi izan dugu, aurreko bileran jasotako kezkak konpontzeko neurriak proposatu direla uste baitugu.

2020an elkar ikusiko dugu berriro!!!

Eskerrik asko!